

2

Testuaren zirriborroa idatzi



Zirriborroen garrantzia

Zirriborroen garrantzia nabarmendu beharra dago.

Idazten ari garela, atzera eta aurrera ibiltzen gara beti, eta, horregatik, ohikoa da zenbait zirriborro egitea azken bertsioa idatzi orduko.

Nondik hasi?

Posta idazteko abiapuntua testurako aurrikusi genuen egituraketa izan zen:

1. **Titulua:** Kendu errepikapenak testuetatik
2. **Sarrera:** Gaia aukeratzeko arrazoiak eta helburua
3. **Testuaren gorputza:** Errepikapen mota, irtenbidea eta adibidea
4. **Bukaera:** Ideia-gakoak eta aholku orokorrak

Ideia bat, paragrafo bat

Zirriborroa idazten lagunduko digun ideia nagusi bat dago: paragrafo bakoitzean ideia bakarra garatu behar dugu.

Ideiak nahasten ez ditugula ziurtatzeko, oso eraginkorra da paragrafo bakoitzari dagokion galdera edo titulua zehaztea.

Galdera edo titulua

(ideia)

Testua

(paragrafoa)

1. Titulua



Zertaz idatziko dut?

Kendu errepikapenak testuetatik

Zirriborroan, horrela utzi genuen titulua. Testu osoa idatzi ondoren, pista gehiago izango dugu titulua egokia den ala aldatu behar den baloratzeko.

2. Sarrera

Zergatik aukeratu dut gai hori?

Idaztean, beharrezkoa da zenbaitetan elementuak errepikatzea mezua argitzeko helburuarekin; gehiegizko errepikapenek, ordea, irakurketa astundu, ulergarritasuna gutxitu eta estilo pobrezia erakusten dute.

Zein da testuaren helburua?

Post honetan, testuetatik ezabatu daitezkeen zenbait errepikapen identifikatu nahi ditugu. Zer egin horiek baztertzeke? Adibideak eskainiko ditugu irtenbideak argi ulertu daitezzen.

3. Testuaren gorputza

Hasierako esaldiak testuaren antolaketa ulertzen laguntzen digu:

**Zelan sailkatu ditugu
ohiko errepikapenak?**

Ohiko errepikapenak era askotan sailkatu daitezke. Hiru multzotan bildu ditugu:

Testuaren gorputzean, gainerako edukia eskema honen arabera eskaintzea erabaki genuen:

Errepikapen mota

**Errepikapenaren
deskribapena /
irtenbidea**

**Adibide
desegekia / egokia**

Bigarren elementuan, ideia bakarra eskaini beharrean, bi ideia ematea nahiago genuen: errepikapenaren deskribapena eta irtenbidea. Berez, bien arteko lotura baitzen nabarmendu nahi genuena.

Aurkezpen honetan, testuaren gorputzaren lau zati azaltzen ditugu adibide gisa.

Errepikapen mota (1)

Hitzen errepikapena

**Errepikapenaren
deskribapena (1) / irtenbidea**

Askotan, esanahi bereko hitz bi
elkarren ondoan jartzen ditugu.
Biotako bat eskaintzea nahikoa da.

**Adibide
desegokia / egokia**



Ebaluazio **egokia eta aproposa**
egin beharko da.



Ebaluazio **egokia** egin beharko da.

Errepikapen mota (1)

Errepikapenaren deskribapena (2) / irtenbidea

Hitzen errepikapena

Paragrafo berean hitz bera askotan errepikatzeko dugunean, testuaren estiloa pobretzen dugu. Batzuetan, hitza kendu daiteke esaldiak beste era batera antolatuz gero; edo, hitza ordezkatzeko, izenordainak zein sinonimoak erabil ditzakegu. Kontuz sinonimoekin, ordea, bi hitzek beti ez baitute gauza bera adierazten.

Adibide desegokia / egokia



Langileak hizkuntza-gaitasun nahikoa izan behar dute kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko. Ez badaukate, **langileak** subrogatu beharko dira. Kontratistak euskara kontratuan eskatzen den bezala erabiltzen duten **langileak** hartu beharko ditu, **langile** subrogatuak ordezteko.



Langileak subrogatu beharko dira hizkuntza-gaitasun nahikorik ez badaukate kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko. Kontratistak euskara kontratuan eskatzen den bezala erabiltzen duten **beharginak** hartu beharko ditu **subrogatuak** ordezteko.



Langileak subrogatu beharko dira hizkuntza-gaitasun nahikorik ez badaukate kontratuko baldintza-agirietan hizkuntzari buruz ezarritako betekizunak betetzeko. **(Langile) Horiek** ordezteko, euskara kontratuan eskatzen den bezala erabiltzen duten **beharginak** hartu beharko ditu kontratistak.


Errepikapen mota (1)

Hitzen errepikapena

Errepikapenaren deskribapena (3) / irtenbidea

Errepikatutako hitza aditz ahula denean, irtenbiderik onena da aditz esanguratsu batez ordezkatzea.

Adibide desegokia / egokia



Oraindik ez dira **egin** erronda egutegiak; menpeko langilearen lan-kargaren arabera **egingo** dira.



Erronda egutegiak **ezarri** gabe daudenez, langilearen lan-kargaren arabera **banatuko** dira.

Errepikapen mota (2)

Errepikapenaren deskribapena (1) / irtenbidea

Esaldien, esaldi-zatien edo egituren errepikapena

Paragrafo bat idaztean, ohikoa da esaldi ezberdinetan forma bera errepikatzea ideia berari erreferentzia egiteko. Ideiak ordenatuz gero, errepikapenak saihestu ditzakegu.

Adibide desegokia / egokia



Kontratua gauzatzeko aldian, prestazioa zuzena dela **egiaztatzen** eskubidea du Administrazioak; halaber, prestazio hori baldintza administratiboan orrian xedatutakoarekin bat datorrela **egiaztatzen** eskubidea du.



Kontratua gauzatzeko aldian, Administrazioak **eskubidea du** **egiaztatzen** prestazioa zuzena dela eta baldintza administratiboan orrian xedatutakoarekin bat datorrela.

Eskema berari jarraitu genion testuaren gorputz osoa osatu arte. Aurkezpen honen bukaerako eskeman, gainerako errepikapen motei buruzko aipuak ere gehitu ditugu.

4. Bukaera


**Errepikapena, normala edo deigarriagoa
(ideia-gakoa)**

Idazkeran, normala da preposizio, juntagailu, izenordain, artikulua eta hitz erabiliak askotan agertzea testuetan. Hitz arraro edo teknikoak errepikatzea, berriz, deigarriagoa gertatzen da.

**Errepikapenen gehiegikeria saihesteko hiru aholku
(ideia-gakoa)**

Elementuak gehiegi ez errepikatzea da kontua. Horretarako, hona hemen hiru aholku nagusi:

- Esaldiak eta paragrafoak era egokian antolatzeko, ondo ordenatu ideiak.
- Edukia adierazten zehatza izan, eta erabili hitz edo egitura esanguratsuak.
- Aztertu zure idazkera-ohiturak, eta baztertu desegokiak direnak.



Zirriborroa idatzi

1. Titulua

Kendu errepikapenak testuetatik

2. Sarrera

Gaia aukeratzeko arrazoiak

Testuaren helburua



3. Testuaren gorputza

Hitzak errepikapena / Irtenbidea

- Hitz bi elkarren ondoan / Bakarria eman
- Hitz bera paragrafo berean askotan errepikatua / Sinonimoak eta izenordainak erabili
- Aditz ahula / Aditz esanguratsua

Esaldiak, esaldi-zatiak edo egiturak errepikapena

- Forma bera errepikatzea ideia berari erreferentzia egiteko / Ideiak ordenatu
- Zehaztasun faltagatik egindako errepikapenak / Zehatzak izan
- Beharrezkoak ez diren makulu-esamoldeak / Kendu
- Betegarri gisa erabiltzen diren loturak / Kendu
- Zerrendetan, edukia errepikatu item guztietan / Sarrera egokia gehitu eta behin eskaini edukia

Informazio inplizituak

Beharrezkoa ez den edukia gehitu / Kendu

4. Bukiera

Idea gakoak eta aholkuak

Zirriborroa idatzita geneukan.

Hurrengo fasea, zirriborroa zuzentzea.